

ARGIBIDEAK: Ikasleak proposatzen diren A eta B aukeretako baten galdera guztiak erantzun behar ditu. Galdera bakoitzean adierazten da gehienezko puntuazioa zein den.

A AUKERA

1. zatia: DEFINITU ONDOKO TERMINO HAUEK (Gehienezko balioespena: **3 puntu**)

Baskoiak. Erdi Aroko gorteak. Tordesillaseko Ituna. Moriskoen egoztea. Merkantilismoa.

2. zatia: TESTU HISTORIKOA: *1855eko Desamortizazio Orokorra.*

Isabel II.a andreak, Jainkoaren graziaz eta Konstituzioagatik Espainietako erreginak, honako hau ikusi eta ulertuko duen edozeini jakinarazi nahi dio Gorte Konstituziogileek ondorengo hauek drekretuz agintzen dituztela, eta geronek berronetsi:

I. Titulua.-

I. I. Salmenta egoeran daude (...) ondorengoak diren landa eta hiri onibar, errolda eta foro guztiak:

Estatuarenak; elizarenak; Santiago, Alcantara eta Calatravaren ordena militarrekoenak (...); kofradia, ekintza jainkozaleen zentro eta santutegienak; Karlos infante ohiak bahitutakoak; herrietako berezi eta arruntenak; ongintzarenak; heziketa publikoarenak eta esku mortuetan dauden guztiak, aurreko legeek salmentara behartutakoak izan edo ez.

II. Aurreko artikuluan zehaztutakoaz salbuetsirik geratzen dira:

- 1. Dagoeneko zerbitzu publikoetara bideratutako edo Gobernuak bidera ditzakeen eraikin eta onibarrak.*
- 2. Gaur egun ongintza eta hezkuntza zerbitzuek betetzen dituzten eraikinak.*
- 3. Apezpiku eta Artzapezpiku bakoitzaren jauregia edo egoitza: eta (...) parrokoak bizitzeko prestatuak dauden etxeak (...)*
- 6. Gobernuak saldu nahi ez dituen mendi eta basoak.*
- 7. Almadengo meategiak.*
- 8. Gatzagak*

IV. Titulua:

XV. Propioen ondasunen salmenten % 80 inbertituko du Gobernuak, (...) % 3an egonkortutako Zorraren tituluak erosteko (...).

1855eko Desamortizazio Orokorreko Dekretua

GALDERAK (Gehienez: **3,5 puntu**)

- a) Kokatu testua bere testuinguru historikoan (Gehienez: 2,5 puntu)
- b) Esan 1855eko desamortizazioa ekarri zuten arrazoiak eta zer ondasun desamortizatu ziren (Gehienez: puntu 1)

3. zatia: SINTESIA (Gehienez: **3,5 puntu**)

Bi aldeen bilakaera politikoa Espainiako Gerra Zibilean (1936-1939)

UNIBERTSITATEAN SARTZEKO PROBAK
HISTORIA AZTERKETA
 2007-2008 IKASTURTEA

ARGIBIDEAK: Ikasleak proposatzen diren A eta B aukeretako baten galdera guztiak erantzun behar ditu. Galdera bakoitzean adierazten da gehienezko puntuazioa zein den.


B AUKERA

1. zatia: DEFINITU ONDOKO TERMINO HAUEK (Gehienezko balioespena: **3 puntu**)

Erromanizazioa. Taifa erresumak. Nafarroako erregeordea. Komunitateen altxamendua. Erregalismoa.

2. zatia: GRAFIKOA: *Espainiako konstituzioen iraupena (1812-2007)*

Espainiako konstituzioen iraupena (1812-2007)



GALDERAK (Gehienez: **3,5 puntu**)

- Grafikoaren deskribapena (Gehienez: puntu 1)
- Grafikoaren interpretazioa (Gehienez: 2,5 puntu)

3. zatia: SINTESIA (Gehienez: **3,5 puntu**)

Errestaurazioaren sistemaren aurkako jarrera: Azaltzen ari ziren indar politikoak